

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena: /
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

Behatokia		Observatorio
Bizkaia hoberantz egin du 2004ko ekitaldi ekonomikoaren itxieran, eta hobekuntza hori honako hauetan nabari da: inbertsioaren dinamismo handiagoa, enplegu sorrera eta enpresen konfiantza handiagoa.	+	Bizkaia cierra el año económico de 2004 con una positiva mejora que viene caracterizada por el dinamismo de la inversión, la creación de empleo y una mayor confianza de las empresas.
Industriaren Konfiantza Adierazlea hobetuz doa maila apalean bada ere, eta aurreko urtean erregistratutako kopurua gainditu du.	+	El Indicador de Confianza de la Industria presenta una línea de tendencia de suave crecimiento que transcurre a un nivel superior al de un año antes.
Eskabide-zorroa nabarmen hobetu da, hots, kopuru negatibo gutxiago du eta maila egokirantz hurbiltzen ari da.	+	Mejora significativamente la cartera de pedidos, que reduce su valor negativo y se aproxima al considerado como su nivel adecuado.
Eraikuntzaren sektorean, lizitazio ofizialak indartsu jarraitzen du.	+	En el sector de la Construcción, la licitación oficial continúa mostrando una gran fortaleza.
2004an bisitarien errekorra lortu da eta 768.839 bisitari izan ditugu guztira.	+	En el año 2004 se contabiliza una cifra récord de visitantes con un total de 768.839.
Portuko eta aireportuko trafikoari dagokionez ere, jarduera mailaren errekorra erregistratu da 2004an.	+	Tanto el Puerto como el Aeropuerto alcanzaron en 2004 cifras récord en su actividad.
Kanpo merkatuan esportazio eta inportazioen hazkunde tasa handiak erdietsi dira.	+	El mercado exterior se caracteriza por las importantes tasas de crecimiento tanto de las exportaciones como de las importaciones.
2004an 2.782 enpresa berri sortu dira Bizkaian, hots, 2003an baino 15 sozietate berri gehiago.	=	En 2004 se crearon un total de 2.782 nuevas empresas en Bizkaia, cifra que supone un incremento en 15 nuevas sociedades respecto a 2003.
2004aren amaieran Bizkaiko langabezi tasa %7,7raino jaitsi da, 1985etik erregistratu den baxuena alegia.	+	A finales de 2004 la tasa de paro en Bizkaia se redujo hasta el 7,7%, la más baja desde 1985.
2005ari begira, zalantza da nagusi. Aurreikuspenen arabera, ezaugarri hauek nabarmenduko dira nazioarteko ekonomian: moteltasuna, lehengaien prezioen garestitzea, tirabira geopolitikoak, eragin inflazionista eta euro/dolarraren parekotasuna. Bizkaiko ekonomiak 2004ko bidetik jarraituko du 2005ean.	=	El año 2005 se presenta lleno de interrogantes. Las previsiones dibujan una economía internacional marcada por la desaceleración y por las dificultades generadas por el encarecimiento de las materias primas, las tensiones geopolíticas e inflacionistas y la paridad euro-dólar. La economía de Bizkaia crecerá en 2005 de manera similar a 2004.

Industria

Bizkaiko industri jarduerak hoberantz egin du 2004an, eta eboluziorik positiboa izan duen sektore produktiboa izan da gainera.

Industriaren Konfiantza Adierazleak aurreko urteko kopurua gaingitu du, izan ere, industriaren sektoreak jarduera handiagoa erregistratu du azken bihilekoetan, eta haziz joan da 2004an zehar, maila apalean bada ere.


Produkzioa hobetu egin da urtearen azken bihilekoan, inkestatutako enpresen %63k (%51k 2003an) aitortu baitu produkzioa hobetzea edo mantentzea lortu dutela. Gainera, enpresen igurikapenak oso positiboak dira urte honen hasierarako: %91k uste du bere produkzioa handitu edo behintzat egonkor mantenduko dela.

Industria

La actividad industrial de Bizkaia en el año 2004 ha presentado una evolución ascendente, constituyéndose como el sector productivo con mejor comportamiento en dicho período.

El Indicador de Confianza de la Industria se sitúa en un nivel superior al de 2003, con una mayor actividad en los últimos bimestres, y una tendencia de suave pero constante crecimiento a lo largo de 2004.

La producción mejora en el último bimestre del año, ya que un 63% de las industrias encuestadas la aumenta o mantiene estable (51% en 2003). Pero, sobre todo, hay que destacar que las perspectivas para los primeros meses de 2005 son muy favorables dado que un 91% opina que su nivel de producción se mantendrá o aumentará.



Eskabide-zorroak hoberantz egin du pixkanaka-pixkanaka urtean zehar, eta maila egokirantz hurbiltzen ari da. Azaro-abenduan enpresen %60k (%57 2003an) bere eskabide-zorroa egokia izan dela adierazi du, gainera, nabarmen jaitsi da eskabide-zorro txikiagoa duten enpresen portzentajea: %28 2004ko seigarren bihilekoan eta %41 2003an.

Bestalde, produkzio gaitasunaren erabilera handigoa izan da, horrela beraz, %82 ingurukoa bazen 2003an %84koa izan da 2004an, %88ra iritsi delarik azken bihilekoan.

Sektoreak eboluzio positiboa izan du 2004ko ekitaldi itxieran eta, beraz, igurikapenak oso baikorrak dira. Ildo horretatik, inkestatutako enpresen %33k aurreikusi du bere produkzioa gehiago haziko dela eta eskabide-zorroak egonkor eutsiko diola, bestalde, %34k dio salmenta handiagoak izango dituela. Salmenta prezioek gora egingo omen dute (%43) eta enpleguaren eboluzioari buruzko aurreikuspenen ehuneko esanguratsu batek (%79) egonkortasuna nagusituko dela dio.

En cuanto a la cartera de pedidos, se ha mantenido, a lo largo del año, la tendencia de suave recuperación y, al mismo tiempo, la aproximación al considerado como nivel adecuado. En noviembre-diciembre un 60% de empresas ha afirmado que el nivel de su cartera de pedidos ha sido adecuado (57% en 2003), reduciéndose además de forma sustancial el porcentaje de empresas que la han visto disminuir: 28% en el sexto bimestre de 2004, por 41% en 2003.

Se aprecia también una mayor utilización de la capacidad productiva, que si en 2003 se había mantenido en torno al 82%, en 2004 se ha elevado hasta el 84%, con incluso un 88% en el último bimestre.

La positiva evolución del sector en 2004 se cierra con unas expectativas claramente optimistas. De este modo, se anticipa un crecimiento más acentuado de la producción en el 33% de las empresas, con estabilidad en la cartera de pedidos y aumento de las ventas en el 34% de las industrias encuestadas. Las previsiones de precios de venta indican a un incremento (43%), mientras que las expectativas sobre la evolución del empleo apuntan mayoritariamente (79%) hacia la estabilidad.

Eraikuntza

Eraikuntzaren sektoreak hazkunde makal samarra izan du, oraindik oso indartsu badago ere; lizitazio ofizialak gogor eutsi dio eta etxebizitzaren eraikuntza, ordea, maila apalagoan hazi da.

Lizitazio ofiziala esanguratsuki hazi da 2004ko urtarril-azaroan, izan ere, %82,6ko hazkunde tasa erdietsi du. Hazkunde hori obra zibilaren eboluzio positiboari zor zaio, 2003ko lehen hamaika hilabeteetako kopuruak hirukoiztu baititu. Eraikuntza, ordea, -%45,7 jaitsi da.

Etxebizitzaren eraikuntzari dagokionean, 2004an egiten hasitako etxebizitzaren kopurua, hala libreena nola babes ofizialekoena, %9,3 jaitsi da; aitzitik, bukatutako etxebizitzak %19,6 hazi dira.

Zerbitzuak

Zerbitzuen sektorea indarberritu egin zen urtearen lehen sei hila. Zerbitzuen sektoreak, oro har, jarduera maila ona izan du 2004an, hala ere, joera desberdinak erregistratu dira bere azpisektoreetan.

Bizkaiko Txikizkako Merkataritzaren Konfiantza Adierazleak bilakaera irregularra izan du 2004an, eta jaitsiz doala esan daiteke, aurreko urteko batez besteko baloreen gainetik badago ere.

Construcción

Prosigue la ligera ralentización del aún elevado crecimiento de la Construcción, un sector en el que la licitación oficial continúa dando muestras de una gran fortaleza, mientras que la construcción de viviendas presenta una mayor debilidad.


La licitación oficial se incrementa notablemente en enero-noviembre de 2004, con una tasa del 82,6%, por el buen comportamiento de la obra civil que multiplica por tres sus cifras de los once primeros meses de 2003, mientras que la edificación se reduce un 45,7%.

El número de viviendas iniciadas en el año 2004, libres o de protección oficial, disminuye un 9,3%; por el contrario, las viviendas terminadas aumentan un 19,6%.

Servicios

El sector de Servicios ha reflejado una actividad positiva en 2004, aunque con comportamientos diferentes en sus distintos subsectores.

El Indicador de Confianza del Comercio Minorista de Bizkaia ha seguido una senda irregular a lo largo de 2004 que, aunque marca una tendencia de ligera disminución, se sitúa en valores medios superiores a los de un año antes.




Bizkaiko aisia-turismo sektoreak eboluzio positiboa izan du 2004an. Hartara, bisitari eta gau igarotze kopuruak ikaragarri hazi dira: %19 biak. Bisitarien errekorra lortu da berriro ere, 768.839 guztira.

Bisitarien Bizkaian emandako egun kopurua 1,88koa izan da batez beste, hau da, 2003ko kopuru berbera erdietsi da. Okupazio maila, berriz, %45,51koa izan da, 2003koa baino handiagoa (%42,25).


El sector de Ocio-Turismo presenta un balance positivo del año 2004, con incrementos de un 19% en la entrada de viajeros y en las pernoctaciones. Se alcanzó, de nuevo, un récord de visitantes con 768.839.

El número de días que ha permanecido por término medio un viajero en un hotel de Bizkaia ha sido de 1,88, la misma cifra de 2003. El grado de ocupación se situó en el 45,51%, por encima del 42,25% de 2003.



Azpiegiturak

2004ko urtean Bilboko Portuko merkatugaien trafikoa %14,5 hazi da eta horrek esan nahi du 32,5 milioi tonako trafikoa egon dela. Deskargatutako merkatugaiak %16,4 hazi dira eta kargatutakoak, aldiz, %9,6. Urte amaieran errekor historikoa lortu da.




2004an Bilbo-Loiu aireportuak bidaiari errekorra lortu du bigarren urtez jarraian eta 3.393.127 bidaiari erregistratu dira guztira. Horrek esan nahi du kopurua %19,8 hazi dela aurreko urtearen aldean eta, beraz, 562.090 bidaiari gehiago igaro direla Bilbo-Loiu aireportutik. Bilboko aireportua, eguzkia eta hondartzak eskaintzen dituzten destinoetarako izan ezik, Estatuko aerodromo garrantzitsuenetakoa da, Barajas eta El Prat-en atzetik.

Infraestructuras

El resultado alcanzado a lo largo de 2004 con relación al tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao ha supuesto un incremento del 14,5%, y un volumen total de 32,5 millones de toneladas. Las mercancías descargadas aumentaron un 16,4% y las cargadas un 9,6%. Estas cifras suponen los mejores resultados en la historia del Puerto.

En 2004 el Aeropuerto de Bilbao-Loiu alcanzó por segundo año consecutivo un récord de pasajeros al situarse en un total de 3.393.127, lo que representa en comparación con 2003 un aumento del 19,8% y 562.090 personas. Con estos datos, el aeropuerto bilbaíno se consolida como el tercer aeródromo del Estado, exceptuando los destinos de sol y playa, por detrás de Barajas y El Prat.



Kanpo merkataritza


Urtearen lehen zazpi hilabeteetan Bizkaiko kanpo merkataritzak hazkunde tasa handiak erdietsi ditu, eta produktu ez energetikoak kontuan hartzen baditugu, ohartuko gara kanpo merkataritzak ekarpen positiboa egin diola BPGren hazkunderari.

2004ko urtarril-azaroko datu metatuek adierazten digute Bizkaiko esportazioak guztira 4.332 milioi eurokoak izan direla eta inportazioak, aldiz, 5.720 milioi eurokoak. Hortaz, esportazioak %16 hazi dira 2003ko ekitaldiaren aldean eta inportazioak, ostera, %18,6.

Comercio Exterior

A pesar de que la reactivación económica internacional no termina de consolidarse, el Comercio Exterior de Bizkaia mantiene tasas elevadas de crecimiento, con una aportación positiva al crecimiento del PIB si se considera la balanza de productos no energéticos.

Los datos acumulados de enero-noviembre de 2004 muestran que las exportaciones de Bizkaia ascendieron a 4.332 millones de euros, mientras que nuestras compras al exterior se situaron en 5.720 millones. Estas cifras suponen un incremento de las exportaciones totales en un 16% respecto al mismo período de 2003 y del 18,6% para las importaciones.




Enpresa dinamismoa

2004an 2.782 sozietate berri sortu dira Bizkaian. Kapitalaren gutzizko ekarpena 357 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko kapitala 128.418 eurora iritsi da batez beste. Horrek esan nahi du 15 sozietate berri gehiago dagoela 2003ko aldi berberarekin konparatuz (2.767 enpresa).

Dinamismo empresarial

En el año 2004 se han creado en Bizkaia un total de 2.782 nuevas sociedades con un capital social de 357 millones de euros, lo que supone un importe medio por empresa de 128.418 euros. Esta cifra representa un incremento en 15 nuevas sociedades sobre la cifra del mismo período del año 2003 que se situó en 2.767 empresas.



Zerbitzuen sektorearekin lotutako jarduerak lehen postuan daude, hau da: enpresa sortu berrien %75 dira, kapital sozialaren %85,5 ordezkatzeko dute eta 27 sozietate gehiago sortu dira. Eraikuntzaren sektorean 457 sozietate berri sortu dira (2004an baino 14 gutxiago), hau da, Bizkaian sortutako konpainia guztien %16 dira eta kapital sozialaren %13 ordezkatzeko dute. 2004an sortutako sozietateen %5,5 industriaren sektorekoak dira, hots, kapital sozialaren %1,7 ordezkatzeko dute (hots, 6,1 milioi euro). Sektorearen batez besteko kapitala 39.949 eurokoa da enpresako.

Las actividades relacionadas con el sector de Servicios ocupan el primer puesto con un 75% de las nuevas empresas creadas, un 85,5% del capital social y un crecimiento en 27 sociedades. En el sector de la Construcción se han constituido 457 nuevas compañías, 14 menos que en 2003, suponiendo un 16% de las empresas creadas en Bizkaia, con un 13% del capital social. Un 5,5% del conjunto de sociedades creadas en 2004 corresponde al sector industrial, con un 1,7% del capital social, con un total de 6,1 millones de euros. El capital medio del sector se sitúa en 39.949 euros por empresa.

Lan merkatua


2004ko ekitaldi itxieran 473.800 okupatu egon dira Bizkaian, hau da, aurreko urtean baino %3,9 gehiago. Gainera, langabezi tasa %7,7ra jaitsi da, hortaz, tasarik baxuena erdietsi da 1985etik eta 2003ko azken hiruhilekoan erregistraturikoa baino 2,6 puntu beherago geratu da. Bizkaiko langabezi tasa hau euro gunekoa eta EB-25 herrialdeetako (%8,9) baino 1,2 puntu txikiagoa da.

Eustat-en datuek 2004an enplegu gehiago sortu dela eta langabetuen kopurua jaitsi egin dela baieztatzen dute. 2003ko azken hiruhilekoan 13.100 langabetu gutxiago eta 17.900 okupatu gehiago egon da.

Mercado de trabajo

El ejercicio 2004 se cierra en Bizkaia con 473.800 personas ocupadas, lo que supone un 3,9% más que en el mismo período del año anterior. Además, la tasa de paro se reduce al 7,7%, la más baja desde 1985, situándose 2,6 puntos por debajo de la cifra del último trimestre de 2003. Esta tasa de paro de Bizkaia resulta 1,2 puntos inferior a la de los países de la Zona Euro y de la UE-25 (8,9%).

Los datos del Eustat confirman la tendencia creciente de generación de empleo a lo largo del año y la disminución de la población parada. Con relación al último trimestre de 2003, el paro descende en 13.100 personas, mientras que el número de ocupados aumentó en 17.900.



BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2003	2004	% 04/03
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Azaro-abendua	-12	0	--
- Industri Produkzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Abendua	92,5	93,8	3,4
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarril-abendua	4.453	4.881	9,6
- Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Azaro-abendua	83	88	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Azaro-abendua	-39	-16	--
- Zementu Kontsumoa (milaka tona.)	OFICEMEN	Urtarril-urria	694,9	561,1	-19,2
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarril-azaroa	418	764	82,8
- Hasitako etxebizitzak	VAS-GV	Urtarril-abendua	7.613	6.904	-9,3
- Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarril-azaroa	25.219	29.135	15,5
- Loiu Aireportuko bidaiarien Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarril-abendua	2.831	3.393	19,8
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarril-abendua	1.175	1.392	18,5
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Azaro-abendua	-14	-20	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzaileen konfiantza adierazlea	FCVN	IV. hiruhilekoa	-9	-11	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarril-abendua	28.129	31.375	11,5
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarril-abendua	5.591	6.562	17,4
- Bizkaiko KPI	INE	Abendua	108,4	111,9	3,3
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	III. hiruhilekoa	109,9	118,7	5,5
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	IV. hiruhilekoa	455,9	473,8	3,9
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	IV. hiruhilekoa	52,6	39,5	-24,9
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	IV. hiruhilekoa	10,3	7,7	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Abendua	43,9	41,8	-4,8
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Abendua	442,5	455,8	3,0
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarril-urria	3.734	4.332	16,0
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarril-urria	4.821	5.720	18,6
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarril-abendua	2.767	2.782	0,5

- (1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2003	2004	% variac
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Nov.-dic.	-12	0	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	diciembre	92,5	93,8	3,4
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-dic.	4.453	4.881	9,6
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Nov.-dic.	83	88	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Nov.-dic.	-39	-16	--
- Consumo de Cemento (miles Tm.)	OFICEMEN	Enero-octubre	694,9	561,1	-19,2
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-nov.	418	764	82,8
- Viviendas iniciadas	VAS-GV	Enero-dic.	7.613	6.904	-9,3
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-nov.	25.219	29.135	15,5
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-dic.	2.831	3.393	19,8
- Pernoctaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-dic.	1.175	1.392	18,5
- Indicador de Confianza del Comercio	CCB	Nov.-dic.	-14	-20	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de Confianza del Consumidor	FCVN	IV trimestre	-9	-11	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-dic.	28.129	31.375	11,5
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-dic.	5.591	6.562	17,4
- IPC Bizkaia	INE	diciembre	108,4	111,9	3,3
- Índice de Ventas del Comercio Minorista (3)	EUSTAT	III trimestre	109,9	118,7	5,5
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	IV trimestre	455,9	473,8	3,9
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	IV trimestre	52,6	39,5	-24,9
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	IV trimestre	10,3	7,7	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	diciembre	43,9	41,8	-4,8
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	diciembre	442,5	455,8	3,0
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-octubre	3.734	4.332	16,0
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-octubre	4.821	5.720	18,6
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-dic.	2.767	2.782	0,5

- (1) Incremento en relación al mismo periodo del año anterior
(2) Saldo neto de respuestas
(3) Incremento sobre la media del mismo periodo del año anterior

